

EMAITZEI BURUZKO

TXOSTENA



ETORKIZUNA
ERAIKIZ



AURREKONTU IREKIAK 2019

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan bultzatutako **“Aurrekontu Irekiak 2019”** partaidetza-prozesuaren emaitzak biltzen dira txosten honetan. **2018ko apirilaren 9tik 2018ko ekainaren 30era** egin zen, hain zuzen, herritarren iritzia jasotzeko ariketa hori. Izan ere, horixe da Kudeaketa Plan Estrategikoaren bost helburu nagusietako bat, non, besteak beste, “Gipuzkoako gobernu berrasmatzeko beharra” jasotzen baita, “herritarrek parte hartzeko modu errazak irekiz”.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduna gidatzen duen PDCA (Plan-Do-Check-Act – Planifikatu-Egin-Egiaztatu-Ekin) metodologiari jarraituz, txosten honen bidez amaitzen da 2019ko ekitaldiko aurrekontu ireki eta parte-hartzaileak egitea ahalbidetuko duen fasea. Gizarteari Lurralde Historikoko jarduera-ildo eta proiektu estrategikoetan parte hartzeko aukera eman ahal izateko, beharrezkoa da foru-erakundearen eta herritarren arteko komunikazio-eredua birdefinitzea, eta hurbiltasunean, ezagutzan eta gardentasunean oinarrituriko eredu berri bat sortzea.

Txostenean, partaidetza-prozesu horren mugarrak eta lorturiko emaitzak deskribatzen dira. Horretarako, lehenik eta behin, Aurrekontu Irekiak 2019 partaidetza-prozesuaren testuingurua aztertuko dugu. Bigarrenik, prozesua aztertzeko erabili den metodologia eta prozesuaren fitxa teknikoa azalduko ditugu. Hirugarrenik, zer emaitza lortu diren azalduko dugu, egindako galdera bakoitzari dagozkionak zehaztuz. Eta, azkenik, ondorio batzuk aipatuko ditugu, eta Gipuzkoan Gobernu Irekiaren eredu berria finkatzeko Aldundiak zer konpromiso hartu dituen azalduko dugu.

Txosten honetan deskribatutako partaidetza-prozesuaren emaitzek azterketa sozial eta estatistikoaren kalitate-estandarrak betetzen dituzte. Estandar horien arabera, bermatuta dago emaitza horien egiazkotasuna eta fidagarritasuna. Halaber, zorrozki bermatzen dira datuen zaintza, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoarekin, abenduaren 13koarekin, bat.

AURKIBIDEA

0. SARRERA, **4. o.**

1. PARTAIDETZAREN TESTUINGURUA: GIPIUZKOA ETA 2019KO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK, **6. o.**

1.1 GIPIUZKOAN KULTURA PARTE-HARTZAILEAREN ALDE EGINEZ, **6. o.**

1.2 ZEIN IZAN DA PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN EGUTEGIA? **8. o.**

1.3 PROZESUA SOZIALIZATZEKO KANALAK, **9. o.**

1.3.1 Komunikabideetan eta sare sozialetan zabalduz, 9. o.

1.3.2. Frankeo ordaindua duten galdera-sortak eta informazio-liburuxkak gutunontzietan banatuz, 10. o.

1.3.3 Partaidetza birtualaren bidez, 12. o.

1.3.4 Herriz Herri kanpainaren bidez, 12. o.

1.3.5. Topaketak erakunde, elkarte eta udalerrri txikiekin, 15. o.

1.4 ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?, **17. o.**

1.5 ZER BERRIKUNTZA DAKARTZA PARTE-HARTZE PROZESU HONEK?, **18. o.**

2. METODOLOGIA, **20. o.**

2.1. PARTE-HARTZE MAILAREN AZTERKETA, **20. o.**

2.2 EKARPEN IREKIEN AZTERKETA (1 G. – 2 G.), **20. o.**

2.3 FITXA TEKNIKOA, **21. o.**

3. EMAITZAK, **22. o.**

3.1 PARTAIDETZAREN EMAITZAK, **22. o.**

3.1.1. Generoaren araberako partaidetza, 22. o.

3.1.2. Adinaren araberako partaidetza, 23. o.

3.1.3 Jasotako ekarpenen kopurua eta horiek zein hizkuntzatan jaso dire, 23. o.

3.1.4 Aukeratutako parte-hartze kanalak, 24. o.

3.1.5 Herriz Herri kanpainako parte-hartzea, 25. o.

3.2 PARTE-HARTZE PROZESUAREN EMAITZAK, **27. o.**

4. ONDORIOAK, **50 o.**

0. SARRERA

Hirugarren urtez jarraian, Aurrekontu Irekien prozesua abian jarri, eta herritarrei parte har dezaten dei egin zaie **GIPUZKOAN**. Hala, gobernantza-eredu berri bat finkatzen ari den erreferentziazko lurralde historiko gisa finkatu da. Foru Administrazioan Gobernu Irekiaren eredua finkatzeak berekin dakar, besteak beste, herritarren eta haien ordezkarien artean konfiantza sortzea, kontuak gardentasunez eman daitezen laguntzea, kontuak modu eraginkorrean eta berme osoz ematea eta partaidetza-prozesuak herritar guztientzako gobernantza-modu berri bat bezala finkatzea.

Gaur egun, herritarrek gero eta gehiago adierazten dute beste gobernantza-eredu baten beharra. Beraz, inoiz baino beharrezkoagoa da gobernantza kolaboratiboa eta herritarren partaidetza bultzatzeko pausoak ematea, herritar guztion artean etorkizuna eraiki ahal izateko. Eredu hori martxan jarritz, herritarrek partaidetza aldaketarako tresna gisa finkatzeaz gainera, Lurralde Historikoaren aurrerabideari eta etorkizunari laguntzen zaio. 2015-2019rako Gobernantza Onaren Estrategia norabide horretan ari da pausoak ematen, "governatzeko moduak eraldatzeko eta gobernantza ona Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun-ikur bihurtzeko asmoz".

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoak gobernantza-eredu ireki eta kolaboratiboa proposatzen du, pertsonetan eta honakoa lor hauetan oinarritua:

- ✔ Lidergo eraldatzailea, gainerako erakundeekin eta gizarteko taldeekin partekatua.
- ✔ Lankidetzak publiko-pribatua, proiektu estrategikoak bultzatzeko.
- ✔ Etengabeko eragin- eta iritzi-trukea herritarrekin eta Lurralde Historikoko gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin.
- ✔ Foru Aldundiko talde politiko eta teknikoen partaidetza aktibo eta protagonista, gobernu-jardunaren lehentasunei segimendua eta ebaluazioa egiteko, zorrotasunez, erantzukizunez eta gardentasunez.

Horregatik esaten dugu Aurrekontu Parte-hartzaileen ekimenak herri-bokazioa duela. Euskadiko Tokiko Erakundearen Lege berria mugarri izan da, partaidetzak eta gobernantza berriak Euskadin bete beharreko arauak zehaztu baititu. Gipuzkoa pausoak ematen ari da bide horretan, herritarren eta espazio publikoaren arteko loturak estutuz eta jarduera politikoei balio kolektiboa emanez. Herritarrak eta eragile

eta aktore sozialak erabaki eta politika publikoetan engaiatzeaz ari gara, partaidetza-eta komunikazio-bide berriak irekiz eta, horrez gainera, foru-erakundearen lan-metodoak eta kudeaketa-sistemak hobetuz eta modernizatuz.

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan txertatuz, konfiantza hori sortzen da, eta gobernuak indartu, politika publikoak legitimatu, gizartearen aniztasuna barneratu, gizartearen interesak agenda publikoan txertatu, herritarrak bizitza publikoaren antolaketa-prozesuetan engaiatu eta gizarte zibilaren funtzioa sendotzen da.


Hitz batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak erronkari heldu dio. Hala, 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotzen denez, garai berriek Gipuzkoako Foru Aldundi eraginkor, hurbileko eta apala martxan jarri eta finkatzea eskatzen dute, zenbait printzipio oinarri harturik (akordioen bilaketa, lidergo partekatua, soiltasuna, Gobernantza Ona eta entzuteko gaitasuna) eta lehentasunak identifikatzeko eta irtenbide eraginkorrak planifikatzeko eta martxan jartzeko gai den gobernu-eredu bat eraikiz. Lurrealdea modernizatzeko erronka estrategiko garrantzitsuei ausardiaz eta erabakitasunez aurre egiteko garaia da, Gipuzkoako etorkizunak ilusioz eraikitzeo proiektua elkarrekin eraikitzeo garaia, garapenean, elkartasunean, kohesioan, lankidetzan, erantzukizunean eta ongizatean oinarrituta.

1. PARTAIDETZAREN TESTUINGURUA: GIPUZKOA ETA 2019KO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

1.1 GIPUZKOAN KULTURA PARTE-HARTZAILEAREN ALDE EGINEZ

Joan den ekitaldian, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak (Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa departamentua) 2017ko aurrekontu irekien partaidetza-prozesua jarri zuen martxan. **2017ko prozesu parte-hartzaile horretan, 2.859 herritarrek hartu zuten parte.** Herritar horiek aukera izan zuten jarduera politikoko ildoak zehaztu, proiektuak hautatu eta Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten departamentuei ekarpen irekiak egiteko. Ekimen arrakastatsua izan zen, aurreko ekitaldietan baino askoz ere jende gehiagok parte hartu baitzuen. Hala, prozesuari berari balioa emateaz gain, Gipuzkoan kultura parte-hartzailea eta Gobernu Irekiaren eredia finkatzen lagundu zuen.

Helburua hori izanik, herritarrekin harreman irekia mantentzeko bideak finkatzean eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzean datza gure estrategia. Gure lurraldean parte hartzea sendotuko duten ekintzak, ekimenak eta prozesuak martxan jartzeko, lau ardatz zehaztu dira:



HELBURUAK	Herritarren ekimenak entzun eta herritarren parte-hartzea bultzatuko duten egiturak martxan jarri.
	Kultura parte-hartzaile handiagoa eta sendoagoa Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa-alor guztietan.
	Ohiko lankidetzak egonkor hobeak eta handiagoak herritarrekin, erakundeekin eta udalekin.
	Herritarren parte-hartzea ulertzeko eta praktikan jartzeko gidak herritarren eskura jarri.
	Partaidetza prozesuetarako tresna sozial eta teknologikoak sistematikoki erabili.
	Informazio eta komunikazio kanal erabilgarriak eta eskuragarriak Aldundiaren eta herritarren artean.


Izan ere, aurrekontu irekiak egitea helburu duen prozesu parte-hartzailea finkatzeko, beharrezkoa da gure herritarrak Lurralde Historikoko kudeaketan zuzenki eta gardenki engaiatzea. Herritarren parte-hartzeak aukera eta abantaila handiak ditu, eta Foru Aldundi moderno, eraginkor, garden eta, batez ere, hurbila eraikitzen laguntzen du. Beraz, orain arteko bideari jarraituz, honako helburu hauek lortu nahi dituen prozesua da:

- ▲ Herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin **KONEKTATU**, haren lana eta kudeaketa ezagutzera emanez.
- ▲ Gure herritarren lehentasunak eta beharrak **EZAGUTU**, eta guztion eskaera errealei egokituko zaizkien emaitzak eskaini.
- ▲ Gipuzkoaren egunerokotasunean gizartearen protagonismo aktiboa **BULTZATU**, herritarrak lurraldeko bizitza publikoaren ikusle hutsak izateari utz diezaizoten lortuz.
- ▲ Ahaldundutako herritarrekin kudeaketa publiko eraginkor, arrazional, eraginkor eta gardena egingo duen Foru Aldundia **FINKATU**.
- ▲ Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako **BIDEAK IREKI**, herritarren eta Foru Aldundiaren arteko elkarriketa eta komunikazioa hobetzen lagunduko dutenak.
- ▲ Herritarrekin, ordezkari publikoekin eta teknikariekin eztabaidatutako aurrekontu irekiak **ONARTU**.

1.2 ZEIN IZAN DA PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN EGUTEGIA?

Herritarrek 2018ko aurrekontu irekiei buruz egindako proposamenei erantzuteko prozesua amaitu ondoren, egungo ekimen parte-hartzailea martxan jartzeko beharrezkoak diren engranaje guztiak mugitzen hasi zen Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza. Lurraldearen tamaina kontuan izanda, plangintza, zehaztasun maila, sozializazio eta koordinazio handia behar duen proiektua da.

Hauk dira parte-hartze prozesuaren egutegiaren faseak (martxoan hasten da plangintza, eta, abenduan, herritarrekin adostutako aurrekontu irekiak Batzar Nagusietan onartu ondoren amaitzen dira).



Ekitaldi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak nahikoa irizpide izango du gipuzkoarrek aurrekontuen inguruan duten ikuspegia zehazten eta jarduera politikoaren ildoak, hau da, Foru Aldundiak bere politikak aurrera eramateko aurrekontua garatzen laguntzeko.

Berriz azpimarratu beharra dago 2019rako Aurrekontu Irekiak prozesu parte-hartzaile landu eta berme-emaila baten ondoren gauzatuko direla. Foru Aldundiaren partaidetza-atarian azaltzen den moduan, herritarrekin komunikatzeko eta publizitate aktiborako estrategia berri bat txertatu da, eta Lurralde Historikoko beharrei erantzuten dieten epe batzuk ezarri dira. Halaber, prozesuak modu integralean eta koherentzia eta gardentasun gehiagoz erantzuten die proposatutako ekimenei, herritarrei arreta emateko eta herritarren partaidetzarako kanal presentzial eta birtualen bidez.

Horrez gainera, gipuzkoarren interesa pizten duten eta haien egunerokotasunean eragina duten proiektuak eta ekimenak jarri dira martxan. Hala, metodologia benetako beharretara egokituz joan da pixkanaka, eta herritarren partaidetza eta ahalduntzea hobetzeko irizpide berriak formulatu dira.

1.3 PROZESUA SOZIALIZATZEKO KANALAK

Komunikazio-estrategia bitarteko hauen bidez hezurramitu da, prozesuaren hedapena, zabalkuntza eta sozializazioa bermatzeko:

- ✔ **Komunikabideetan eta sare sozialetan zabalduz**
- ✔ **Frankeo ordaindua duten galdera-sortak gutunontzietan banatuz**
- ✔ **Partaidetza birtualaren bidez**
- ✔ **Herriz Herri kanpainaren bidez**
- ✔ **Erakunde eta elkarteekin gaikako topaketak eginez (Topaketak)**

1.3.1 KOMUNIKABIDEETAN ETA SARE SOZIALETAN ZABALDUZ

Mikel Lasa Gobernantza eta Komunikazio Diputatuak 2018ko apirilaren 09an aurkeztu zuen aurrekontu irekien prozesua komunikabideen aurrean, eta, aurkezpen horren bidez abiatu zen partaidetza-prozesua. Prentsaurrekoak oihartzuna izan zuen prentsan (Gipuzkoa mailan), eta prozesuaren xehetasunen berri eman zen komunikabideetan:

- ✔ Nola parte hartu, eta zer galdetuko zen.
- ✔ Lurralde osoan 310.000 galdera-sorta baino gehiago banatuko zirela.
- ✔ Prozesuaren diseinuari buruzko mapa bat aurkeztu zen: Foru Aldundiko departamentuen emaitza nagusiak, zifrak, datuak eta proiektuak eta Etorbizuna Eraikiz proiektua hezurramitzen duten proiektu estrategikoak.
- ✔ Herritarrek zuzenean parte hartzeko karpa-egutegia.
- ✔ Edizio honetako berrikuntza guztiak.



Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa departamentuak eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak prozesuaren sozializazio aktiboaren alde egin dute,

ekimena prentsan, irratian eta sare sozialetan zabalduz. Horrez gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Facebook eta Twitter kanaletatik, prozesuaren biralizazioa sustatu da.

1.3.2. FRANKEO ORDAINDUA DUTEN GALDERA-SORTAK ETA INFORMAZIO-LIBURUKAK GUTUNONTZIETAN BANATUZ

310.000 galdera-sorta baino gehiago banatu dira Gipuzkoako etxeetan. Liburuxka horietan, parte hartzeko galderez gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontuen arloan egindako jarduera garrantzitsuenak laburtzen dira, eta Etorkizuna Eraikiz proiektua osatzen duten proiektu estrategikoen mapa jasotzen da.

Hauxe da **informazio-liburuxka**:



2019ko Aurrekontu Irekiei buruzko informazio-materiala Gipuzkoako etxe guztietara zabalduz, prozesurako sarbidea demokratizatu zen, eta, gainera, lurralde osoan hedatu ahal izan zen proiektua. Berrikuntza gisa, edizio honetan, **postontzietan banatu ahal izan dira galdera-sortak, helmugako frankeoaren bidez.**

Zure iritza ezinbestekoa da Gipuzkoaren etorkizuna erabakitzeke.

Aurtenko lekuak ezinbestekoki bi urte daramatzagu herritarren partaidetza sustatzen. Gipuzkoako Indarben, IZ, lurraldeko 37 udaldirban korpo jarri genuen ekarpenak jasoak, zehazki batez beste % 81,7a iritsi. Batez eta batez beste 500 udaldirban baino gehiagoraino bota zuen jarrera. 38 herritar lekuak, udaldirban, bilerak, ikurrak, kultureko lekuak... Gipuzkoari 4.668 ekarpen hartuak zirela garrantzi handia, eta horietatik % 61 erantsi zuten herritarren parte dira.

Uneko, 50 mila urte ingurutan diragu erantsi eta jarduera ekonomiko bultzatzen, eta ia osatutakoa den eredu geografiko bideratzen diragu. Baina orain zehazki parte hartzen da erantsi, eta hori da zure 2019ko iritziak guretzat iritzi gisa. Abuztorearen ondoren, zure iritziak gure iritziarekin erantsi eta jarduera. Uneko erantsi iritziak guretzat iritzi gisa. Baina orain zehazki parte hartzen da erantsi, eta hori da zure 2019ko iritziak guretzat iritzi gisa.

2019ko aurrekontuaren zure iritziak zure proposamenak?

.....

Zeintzuk dira zure iritziak Gipuzkoako etorkizunaren inguruan dituen erantzunak?

.....

Batez beste % 81,7a iritsi. Batez eta batez beste 500 udaldirban baino gehiagoraino bota zuen jarrera. 38 herritar lekuak, udaldirban, bilerak, ikurrak, kultureko lekuak... Gipuzkoari 4.668 ekarpen hartuak zirela garrantzi handia, eta horietatik % 61 erantsi zuten herritarren parte dira.

EDUNA _____
 AZKENAK _____
 JARDUZE DATA _____
 IMAJAN _____
 EMANLA _____
 TELEFONUA _____
 GENERA _____
 UDALDIRBAN _____
 POSIZIOA _____

Zure ekarpenak egiteko lau modu desberdin dituzu:

- Oso erantsi iritziak emateko.
- Webguneak, guretzat iritziak emateko.
- Herritarren parte hartzearen bidez, Abuztorearen ondoren, zure iritziak guretzat iritzi gisa.
- Zure iritziak guretzat iritzi gisa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantsi (Gipuzkoako Plaza 2/g) eta herritarren parte hartzearen bidez.

Informazio telefonoa
943 113 960

Erantsi iritziak emateko, zure iritziak guretzat iritzi gisa. Batez eta batez beste 500 udaldirban baino gehiagoraino bota zuen jarrera. 38 herritar lekuak, udaldirban, bilerak, ikurrak, kultureko lekuak... Gipuzkoari 4.668 ekarpen hartuak zirela garrantzi handia, eta horietatik % 61 erantsi zuten herritarren parte dira.

Erantsi iritziak emateko, zure iritziak guretzat iritzi gisa. Batez eta batez beste 500 udaldirban baino gehiagoraino bota zuen jarrera. 38 herritar lekuak, udaldirban, bilerak, ikurrak, kultureko lekuak... Gipuzkoari 4.668 ekarpen hartuak zirela garrantzi handia, eta horietatik % 61 erantsi zuten herritarren parte dira.

PRESUPUESTOS ABIERTOS 2019

CONSTRUYAMOS ENTRE TODOS Y TODAS EL FUTURO DE GIPUZKOA

gipuzkoa.eus/partaidetza

GUZTION ARTEAN GIPUZKOAREN ETORKIZUNA ERAIKI DEZAGUN

CONSTRUYAMOS ENTRE TODOS Y TODAS EL FUTURO DE GIPUZKOA

ESPAÑA FRANQUEO EN DESTINO F.D.

diseñando postula

Halaber, telefono iraunkor bat ezarri zen, parte hartzeko interesa zuten herritarrentzako, eta prozesuari buruzko galderei edo sozializazio-kanpainan izandako edozein gorabehereri erantzuteko.

Zehazki, herritarrek parte hartzeko bide hauek jarri dira martxan ekitaldi honetan (apirilaren 09tik ekainaren 30era):

- ✓ Helmugan ordaindutako **frankea**.
- ✓ **Presentzialki**, 54 herritarren jarritako partaidetza-karpetako postontzien bidez (Herriz Herri).
- ✓ **Birtualki**, gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza web-orriaren bidez.
- ✓ Foru Aldundiaren **erregistroa** eta tokiko erregistro publikoak.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren **egoitzan** (Gipuzkoako Plaza, Donostia).
- ✓ Gizarte zibilarekin egindako **topaketak** eta herri txikietako ordezkari politikoekin egindako bilerak.

Informazio-liburuxkari dagokionez, ez dugu aipatu gabe utzi nahi pedagogia eginez, eta martxan jarritako politiketara bideratzen diren diru-kopuruen eta partiden jatorria ikusgai jarri eta informazio hori gardenki eta berme osoz emanez, herritarrak ahalduntzen direla.

1.3.3 PARTAIDETZA BIRTUALAREN BIDEZ

Parte hartzeko kanal presentzialen osagarri gisa, beste behin ere, <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza/> web-orria jarri zen martxan. Web-orrian, galdera-sorta eta prozesuaren informazio zabala jasotzen zen. Tresna teknologiko eta birtualek gure gizartean duten pisua kontuan izanda, ezinbestekoa da teknologia berrien bidez parte hartzeko aukera ematea. Hala, modu arin, erraz eta azkarrean nahi dugun informazio hori aurkitzeko eta, beraz, parte hartzeko bide tradizionalen orde, beste modu batera parte hartzeko baliabideak jarri ziren.

1.3.4 HERRIZ HERRI KANPAINAREN BIDEZ

Herriz Herri kanpaina da prozesuaren funtsezko mekanismoetako bat. Ekitaldi honetan, askoz ere herri gehiagotan jarri diren partaidetza-karpak. Karpa horietan, prozesuari buruzko informazioa jaso, parte hartu eta zalantzak argitu ahal izan dituzte herritarrek. Hain zuzen, 54 udalerrri txiki, ertain eta handitan jarri dira partaidetza-karpak, 10:00etatik 19:00etara.

Lehengo urteko ekimen parte-hartzailearekin alderatuta (38 udalerrri), hazkunde handia izan da. Hala, partaidetza presentziala lurralde osoan finkatzea lortu da. Hiru dinamizatzaile kualifikatuk zuzendutako karpe horietan, honako gai hauei buruzko azalpenak eman zizkieten interesa agertu zuten herritarrei:

- ☑ Zer dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak?
- ☑ Zergatik hautatu dira data hauek partaidetza-prozesua aurrera eramateko?
- ☑ Aurrekontuak herritarrekin eztabaidatzen dituen ekimen baten garrantzia.
- ☑ Parte hartzeko erabil daitezkeen kanalak.
- ☑ Herritarrek prozesuari buruz zituzten zalantzak argitu zituzten.
- ☑ Galdera-sortan egiten diren galderei erantzuteko laguntza eskaini zuten.
- ☑ Eztabaida-prozesu aberasgarri eta ireki batean parte hartzera bultzatu zituzten herritarrak.

Beheko koadroan, 57 egunez partaidetza-karpa aktiboak izan zituzten 54 udalerrriak ageri dira. Horrez gainera, karpak zer egunetan jarri ziren eta bisitatutako udalerrien biztanleria ageri dira koadroan. Ez da ahaztu behar Foru Aldundiak udalerrri eta eremu geografiko guztietara iristeko konpromisoa hartua duela, eta, beraz, ez da udalerririk diskriminatzen biztanleen kopurua dela eta.

Udalerria	Lekua	Data	Biztanleria
Aia	Gozategi plaza	09/04/2018	2046
Alegia	Enparantza nagusia	10/04/2018	1730
Andoain*	Goiko Plaza	11/04/2018	14613
Anoeta*	Herriko Plaza	12/04/2018	2061
Antzuola	Kalebarren 1	13/04/2018	2176
Asteasu	Lege Zaharren Plaza	16/04/2018	1505
Astigarraga	Joseba Barandiaran Plaza	17/04/2018	5880
Ataun	San Martin Auzoa	18/04/2018	1701
Azkoitia	Herriko Plaza	19/04/2018	11.587
Azpeitia	Enparantza Nagusia	20/04/2018	14.666
Beasain	Zubimusu Plaza	23/04/2018	13.949
Bergara	San Martin Plaza	24/04/2018	14.743
Deba	Foru plaza	25/04/2018	5.480
Donostia	Katalunia plaza	26/04/2018	186.064
Donostia	Loiola Kalea	27/04/2018	186.064
Donostia	Gaskoinia plaza	02/05/2018	186.064
Eibar	Unzaga Plaza	03/05/2018	27.380
Urnietia	San Juan Kalea	04/05/2018	6.247
Errenteria	Niessen	07/05/2018	39.381
Eskoriatza	Fernando Eskoriatza Plaza	08/05/2018	4.080
Getaria	Getariako frontoia	09/05/2018	2.818
Hernani	Plaza Berria	10/05/2018	19.712
Hondarribia	San Pedro Kalea	11/05/2018	16.950
Ibarra	San Bartolome Plaza	14/05/2018	4.237
Idiazabal	Plaza Nagusia	15/05/2018	2.304
Irun	Colon ibilbidea	16/05/2018	61.608
Irun	Colon ibilbidea	17/05/2018	61.608
Irura	Mikel Goi-Aingerua Plaza	18/05/2018	1.785
Lasarte-Oria	Okendo Plaza	21/05/2018	18.152
Lazkao	Euskadi Enparantza	22/05/2018	5.539
Legazpi	Euskal Herria Plaza	2018/05/23	8.485
Legorreta	Korta eta Zapas enparantza	2018/05/24	1.443
Arrasate	Biteri Plaza	2018/05/25	21.987
Lezo	Santo Cristo Plaza	2018/05/28	5.960
Mendaro	Herriko Enparantza	2018/05/29	2.031
Mutriku	Txurruka Plaza	2018/05/30	5.329
Oiartzun	Euskal Herria Plaza	2018/05/31	10.199
Oñati	Foruen Enparantza	2018/06/01	11.344
Ordizia	Plaza Nagusia	2018/06/04	9.875
Orio	Herriko Plaza	2018/06/05	5.851
Ormaiztegi	Herriko Plaza	2018/06/06	1.316

Udalerria	Lekua	Data	Biztanleria
Pasaia	Euskadi Etorbidea	2018/06/07	16.207
Segura	Juan Deuna Plaza	2018/06/08	1.472
Soraluze	Plaza Barrixa	2018/06/11	3.944
Tolosa	Foruen Plaza	2018/06/12	19.175
Elgoibar	Foruen Plaza	2018/06/13	11.594
Urretxu	Iparragirre Plaza	2018/06/14	6.805
Usurbil	Mikel Laboa Plaza	2018/06/15	6.197
Villabona	Berdura plaza	2018/06/18	5.891
Zumarraga	Euskadi Plaza	2018/06/19	9.918
Zarautz	Lege Zaharra Plaza	2018/06/20	23.117
Zegama	Jose Maiora Plaza	2018/06/21	1.514
Zestoa	Foru plaza	2018/06/22	3.734
Zizurkil	Pedro Maria Otaño Plaza	2018/06/25	2.997
Zumaia	Eusebio Gurrutxaga Plaza	2018/06/26	9.840
Zaldibia	Santa Fe Kalea	2018/06/27	1.575
Aretxabaleta	Herriko Plaza	2018/06/28	6.993
GUZTIRA			703.187

Iturria: Bertan egina.

* Eguraldi txarra dela eta, Herri Herri kanpaina bertan behera geratu zen Andoainen eta Anoetan.

Unibertso osoa kontuan izanda (guztira, 717.832 biztanle daude Gipuzkoan erroldatutan Estatistika Institutu Nazionalaren 2016ko datuen arabera), potentzialki, 10 biztanletik 9ra iritsi da Herriz Herri kanpaina¹. Hala, populazioaren % 97ra iritsi da, eta, beraz, asko handitu da lehengo urteko kanpainen karpek izandako presentzia.

¹ Kasu honetan, ekimenaren potentzialtasun estatistikoa jarri nahi dugu agerian, Gipuzkoaren unibertso osoa kontuan hartuta, eta adina bazterketa-aldagai gisa erabili gabe (gogoratu 16 urtetik gorako gipuzkoar erroldatuek bakarrik parte hartu ahal izan dutela ekimenean).

1.3.5. TOPAKETAK ERAKUNDE, ELKARTE ETA UDALERRI TXIKIEKIN

2019ko Aurrekontu Irekien ekimen parte-hartzailea sozializatzeko fasea amaitzeko, proiektua aurkezteko eta zuzenean hitz egiteko *Topaketak* egin ziren erakunde, gizarte-talde, hainbat motatako elkarte eta udalerrri txikiekin.

Gizarte-ordezkariek eta elkarte-sarea gure gizarteko eragile oso garrantzitsuak dira, metatua duten jakintzagatik eta transmititzen duten ikuspegi kolektiboagatik. Hori dela eta, Mikel Lasa Gobernantza eta Komunikazio diputatuak eta Joseba Muxika Herritarren Partaidetzarako zuzendariak bilera-egutegi bat zehaztu zuten hainbat udalerrri txikitako eragile zibil eta ordezkarri politikorekin, haien ahotsa entzun, parte hartzera gonbidatu, eta 2019ko Aurrekontu irekien ekimen parte-hartzaileei ekarpenak egiteko.

Guztira, **28 topaketa egin ziren askotariko elkarte eta erakundeekin**, eta 800 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte. Hona hemen 2019ko Aurrekontu Irekien kanpainan egindako topaketen zerrenda:

UDALERRIA	DATA	TOPAKETA	PARTE-HARTZAILEAK
<i>Alegia</i>	2018/04/10	Erretiratuak	8
<i>Andoain</i>	2018/04/10	Administrazio-zikloa, Lasalle Berrozpe	14
<i>Anoeta</i>	2018/04/12	Erretiratuak	28
<i>Antzuola</i>	2018/04/16	Kultur etxea	16
<i>Arrasate</i>	2018/05/25	Arrasate ikastetxea	29
<i>Astigarraga</i>	2018/05/15	Erretiratuaren elkarte	46
<i>Azkoitia</i>	2018/04/17	Erretiratuaren zentroa	23
<i>Azpeitia</i>	2018/04/10	DBH1, Urola Ikastola	67
<i>Azpeitia</i>	2018/04/17	Iraurgi ikastola	52
<i>Beasain</i>	2018/04/23	Beasaingo ikastetxe publikoa	68
<i>Bergara</i>	2018/04/12	Urteaga Kalea, 21	18
<i>Deba</i>	2018/04/25	Agirre Jauregia	15
<i>Donostia</i>	2018/06/04	Gipuzkoako Merkatarien Elkarte	14
<i>Donostia</i>	2018/04/17	Usandizaga ikastetxea	32
<i>Donostia</i>	2018/04/17	Zurriola ikastetxea	32
<i>Eibar</i>	2018/05/03	EHU/UPV	45
<i>Elgoibar</i>	2018/05/28	Elgoibarko merkatarien elkarte	7
<i>Eskoriatza</i>	2018/05/30	Erretiratuak eta Eskoriatza Lagunkoia	19
<i>Hondarribia</i>	2018/06/05	Zahar-egoitza	10
<i>Lazkao</i>	2018/05/21	Azki Emakume Elkarte	16

UDALERRIA	DATA	TOPAKETA	PARTE-HARTZAILEAK
<i>Mutriku</i>	2017/05/22	Mutrikuko BHI	29
<i>Oñati</i>	2018/06/01	Batxilergoko eta ekonomiako ikasleak, Zuazola Larraña	64
<i>Ordizia</i>	2018/06/13	Merkatarien elkarte	4
<i>Pasaia</i>	2018/06/21	Arrantzale-kofradia	12
<i>Errenteria</i>	2018/05/28	Errenkoalde merkatarien elkarte	6
<i>Errenteria</i>	2018/05/07	Don Bosco LHII	20
<i>Soraluze</i>	2018/06/18	Zahar-egoitza	28
<i>Urnieta</i>	2018/05/04	Salestarrak	130
GUZTIRA			852

Udalerrri txikiei dagokienez, Foru Aldundiko ordezkariak topaketak egin zituzten, lehen aldiz, tamaina txikiko 35 udalerrirekin. Topaketa horietan, 70 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte. Hona hemen parte-hartze prozesuan egindako topaketen egutegia:

PARTE HARTU DUTEN UDALERRIAK	BIZTANLERIA	DATA ETA TOPAKETAREN EGOITZA	PARTE-HARTZAILEAK
<i>Aduna</i>	470	10/05/2018 Aduna (udaletxeko kultur aretoa)	5
<i>Alkiza</i>	358		
<i>Hernialde</i>	321		
<i>Larraul</i>	245		
<i>Abaltzisketa</i>	324	2018/05/15 Amezketza (kultur etxea)	17
<i>Amezketza</i>	938		
<i>Baliarrain</i>	145		
<i>Gaintza</i>	121		
<i>Orendain</i>	200		
<i>Belauntza</i>	241	2018/05/17 Berastegi (kultur etxea)	8
<i>Berastegi</i>	1.078		
<i>Berrobi</i>	575		
<i>Elduain</i>	242		
<i>Gaztelu</i>	162		
<i>Leaburu</i>	364		
<i>Elgeta</i>	1.113	2018/05/31 Elgeta (udaletxea)	8
<i>Leintz-Gatzaga</i>	235		
<i>Albiztur</i>	330	2018/05/29 Errezil (udal etxea)	12
<i>Aizarnazabal</i>	775		
<i>Beizama</i>	166		
<i>Bidania-Goiatz</i>	515		
<i>Errezil</i>	599	2018/05/17 Gabiria (kultur etxea)	11
<i>Ezkio - Itsaso</i>	613		
<i>Gabiria</i>	487		
<i>Mutiloa</i>	256		

PARTE HARTU DUTEN UDALERRIAK	BIZTANLERIA	DATA ETA TOPAKETAREN EGOITZA	PARTE-HARTZAILEAK
<i>Zerain</i>	255		
<i>Altzo</i>	413		
<i>Ikaztegieta</i>	487	2018/05/10	
<i>Lizartza</i>	602	Orexa (Udaletxeko kultur aretoa)	10
<i>Orexa</i>	125		
<i>Alzaga</i>	170		
<i>Arama</i>	206	2018/05/24	
<i>Itsasondo</i>	658	Olaberria (udaletxea)	8
<i>Olaberria</i>	941		
GUZTIRA			79

Sektore, gizarte-talde eta ordezkari politikoek egindako ekarpenak **aktan jaso**, eta kodifikatu egin ziren. Horrez gainera, topaketetan parte hartu zutenei 209ko Aurrekontu Irekien galdera-sorta betetzea proposatu zieten.

1.4 ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

2019ko Aurrekontu Irekien ekimena Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiei irekia egon da hiru hilabetez.

Aurrekontu Irekien prozesu honetan, bi galdera ireki egin dira:

- 1. G. IREKIA: Zer proposamen dituzu 2019ko aurrekontuetarako?
- 2. G. IREKIA: Zure ustez, zein dira Gipuzkoako etorkizunerako erronka nagusiak?

Planteamendu metodologiko horretan oinarriturik, herritarren hausnarketa, kezka, nahi, gomendio eta iradokizun nagusiak bildu ahal izan dira, eta horiek guztiak baliagarriak izan dira foru-erakundeak aurrekontuak egiteko orduan hartu dituen erabakien norabidea zehazteko orduan.

1.5 ZER BERRIKUNTZA DAKARTZA PARTE-HARTZE PROZESU HONEK?

Orain arte martxan jarritako prozesuen ibilbideari jarraiki, 2019ko Aurrekontu Irekien ekimen parte-hartzailea prozesu berria eta berritzailea izan da, mamiari nahiz azalari dagokionez.

- ✔ Lehenengo aldiz, **parte hartzeko kanal kopurua handitu da**, eta helmugako frankeoa gehitu zaie ohiko kanalei: presentziala (Herriz Herri), birtuala eta foru-erregistroak.
- ✔ **Ekimen parte-hartzaileak askoz ere iraupen handiagoa** izan du: 83 egun (apirilaren 09tik ekainaren 30era).
- ✔ **Herri Herri kanpainak Lurralde Historikoko udalerrri ertain eta handi guztiak** bildu ditu (54 udalerrri bisitatu dira).
- ✔ **Topaketak askotariko elkarteetara iritsi dira**, eta 800 lagunek baino gehiagok parte hartu dute.
- ✔ **Lehen aldiz**, hartu-eman aktiboko prozesua **udalerrri txikietara ere iritsi da**, eta, hala, **lurraldeko udalerrrien % 100a bildu du prozesuak**.

	AURREKONTU IREKIAK 2017	AURREKONTU IREKIAK 2018	AURREKONTU IREKIAK 2019
POSTONTZIETAN BANATUTAKO GALDERA- SORTA KOPURUA	25.000	310.000	310.000
PARTAIDETZA-KANALAK	3	3	4
PROZESUAREN IRAUPENA	44	60	83
BISITATUTAKO UDALERRIAK (HERRIZ HERRI)	16	38	54
BISITATUTAKO	-	28 topaketa 527 lagunekin	28 topaketa 852

	AURREKONTU IREKIAK 2017	AURREKONTU IREKIAK 2018	AURREKONTU IREKIAK 2019
UDALERRIAK (TOPAKETAK)			lagunekin
UDALERRI TXIKIETAKO TOPAKETAK	-	-	8 topaketa 79 ordezkarirekin

2. METODOLOGIA

Datu estatistikoak aztertzeko erabili ohi diren ikerketa tekniko kualitatibo eta kuantitatiboetan oinarritzen da erabilitako metodologia. Hala, emaitzen izaera zehazteko, kalkulu estatistikoak egin dira, lurraldearen lagin bat oinarri hartuta.

2.1. PARTE-HARTZE MAILAREN AZTERKETA

2019ko Aurrekontu Irekien prozesu osoan eskura egon diren kanalen bidez galdera-sorta ondo bete duten partaide guztiek osatzen dute lagina. Halaber, bi baldintza hauek bete behar dituzte partaideek: 16 urtetik gorakoak izatea eta Gipuzkoak erroldatuta egotea. Halaber, beste datu batzuk bereizi dira, honako adierazle eta aldagaiak kontuan hartuta:

- On-line partaide kopurua, liburuxka erregistro publiko batera edo Gipuzkoako Foru Aldundira bidali duten partaideekin edo karpetan zuzenean parte hartu dutenekin alderatuta.
- Parte hartu duten emakumeen kopurua, parte hartu duten gizonezkoekin alderatuta.
- Laginaren adina, batez beste.

Ohar metodologikoa: Emaitza horiek lortzeko, lortutako datuak iragaziko dira (presentziala edo on-line). Halaber, histograma bat egingo da, adin-banaketa eta lagin presentzialaren banaketa geografikoa irudikatzeko.

2.2 EKARPEN IREKIEN AZTERKETA (1 G. – 2 G.)

Herritarrek 1. galderari eta 2. galderari egindako ekarpenak kategoriatan kuantifikatu eta kodifikatu dira, partaideen laginak egindako ekarpenen mapa kualitatibo bat egin ahal izateko.

2.3 FITXA TEKNIKOA


- **Unibertsoa:** 618.256 (Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorakoak 2014/12/31n) [318,054 emakume eta 300,202 gizon]
- **Laginaren tamaina:** 4.420 lagun
- **Metodoa:** Probabilitatezkoa ez den laginketa
- **Errore-marjina:** 618.256 biztanletik 4.420 laguneko lagina izanez, % 1,5eko errore-marjina dago, gehienez [% 95eko konfiantza-tartea erabiltzen da, eta % 50eko heterogeneotasuna suposatzen da]
- **Informazioaren bilketa:** karpetan egindako ekarpenak, Topaketak, liburuxken bidalketak eta on-line galdera-sortak
- **Bilketaren datak:** 208ko apirilaren 09tik ekainaren 30era

3. EMAITZAK

3.1 PARTAIDETZAREN EMAITZAK


Guztira, 4.420 lagunek osatzen dute lagina

[% 35eko igoera aurreko ekitaldiarekiko]



3.1.1. Generoaren araberako partaidetza


Emakumeen partaidetza (% 58) **gizonezkoena** baino handiagoa izan da (% 41).



3.1.2. Adinaren araberako partaidetza

Partaideen **batezbesteko adina 49,2 urtekoa** izan da. Histograma honetan, adin-taldeen araberako banaketa irudikatzen da.

Adinaren araberako histograma



3.1.3 Jasotako ekarpenen kopurua eta horiek zein hizkuntzatan jaso diren

Guztira, **13.267 ekarpen** kuantifikatu eta kodifikatu dira prozesuan zehar.

	Ekarpen kopurua
1. galdera (1 g.)	8.250
2. galdera (2 g.)	5.017
Guztira	13.267

Bestalde, **gizarte zibilarekin egindako Topaketetan, 265 ekarpen** egin dira. **Tamaina txikiko udalerriekin** egindako topaketetan, berriz, **119**.


Ekarpen kopurua	
Gizarte zibilarekin egindako Topaketak	265
Udalerri txikiekin egindako Topaketak	119
Guztira	384

Ondorengoak izan dira proposamenak egiteko erabilitako hizkuntza portzentaiak.

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Bietan
1. galdera	%44	%56	
2. galdera	%36	%64	
Topaketetako aktak	%49	%40	%11

3.1.4 Ekarpinak bidaliz parte hartzeko kanalak

Karpa ibiltariekin egindako **Herri Herri** kanpainan bildu da, eskura zeuden kanalak guztietatik, ekarpen gehien bildu duena (% 65).



3.1.5 Herriz Herri kanpainako parte-hartzea

Guztira, **10.899** lagunek jaso zuten prozesuan parte hartzeko gonbidapena, **4.847** galdera-sorta eta informazio-liburuxka banatu ziren, eta **2.583** gipuzkoarrek parte hartu zuten.

HERRIZ HERRI KANPAINA	
PARTE HARTZERA GONBIDATUTAKOAK	10.899
BANATUTAKO GALDERA-SORTAK	4.847
PARTE-HARTZAILEAK	2.583

Taula honetan, Herriz Herri kanpainak izandako emaitzak ageri dira:

UDALERRIA	PARTE HARTZERA GONBIDATUTAKOAK	BANATUTAKO GALDERA-SORTAK	PARTE-HARTZAILEAK
<i>Aia</i>	64	39	6
<i>Alegia</i>	147	75	13
<i>Andoain*</i>			
<i>Anoeta*</i>			
<i>Antzuola</i>	248	93	19
<i>Asteasu</i>	87	30	10
<i>Astigarraga</i>	199	85	31
<i>Ataun</i>	69	53	30
<i>Azkoitia</i>	263	82	39
<i>Azpeitia</i>	145	55	36
<i>Beasain</i>	504	98	44
<i>Bergara</i>	368	79	28
<i>Deba</i>	186	89	38
<i>Donostia</i>	453	85	34
<i>Donostia</i>	438	53	23
<i>Donostia</i>	95	40	17
<i>Eibar</i>	183	53	38
<i>Urnieta</i>	94	53	34
<i>Errenteria</i>	342	92	41
<i>Eskoriatza</i>	217	141	48
<i>Getaria</i>	240	104	58
<i>Hernani</i>	239	97	76
<i>Hondarribia</i>	170	105	47
<i>Ibarra</i>	183	94	63
<i>Idiazabal</i>	207	100	73
<i>Irun</i>	211	80	61
<i>Irun</i>	263	129	101
<i>Irura</i>	197	124	69

UDALERRIA	PARTE HARTZERA GONBIDATUTAKO K	BANATUTAKO GALDERA-SORTAK	PARTE- HARTZAILEAK
<i>Lasarte-Oria</i>	307	160	91
<i>Lazkao</i>	204	101	80
<i>Legazpi</i>	139	57	50
<i>Legorreta</i>	190	103	62
<i>Arrasate</i>	498	180	141
<i>Lezo</i>	93	50	41
<i>Mendaro</i>	71	82	43
<i>Mutriku</i>	110	93	47
<i>Oiartzun</i>	94	57	35
<i>Oñati</i>	147	77	51
<i>Ordizia</i>	391	211	63
<i>Orio</i>	499	147	87
<i>Ormaiztegi</i>	162	101	51
<i>Pasaia</i>	400	210	82
<i>Segura</i>	157	70	37
<i>Soraluze</i>	90	78	34
<i>Tolosa</i>	170	73	40
<i>Elgoibar</i>	207	110	54
<i>Urretxu</i>	87	57	29
<i>Usurbil</i>	102	63	34
<i>Villabona</i>	61	57	21
<i>Zumarraga</i>	55	41	24
<i>Zarautz</i>	217	150	42
<i>Zegama</i>	43	38	21
<i>Zestoa</i>	475	315	101
<i>Zizurkil</i>	65	23	44
<i>Zumaia</i>	129	71	48
<i>Zaldibia</i>	43	21	23
<i>Aretxabaleta</i>	92	37	49
GUZTIRA	10.899	4.847	2.583

* Eguraldi txarra dela eta, Herri Herri kanpaina bertan behera geratu zen Andoainen eta Anoetan.


3.2 PARTE-HARTZE PROZESUAREN EMAITZAK

1. galdera: Zer proposamen dituzu 2019ko aurrekontuetarako?

Guztira, herritarrek **8.250 ekarpen** egin dizkiote galdera-sortako lehenengo galderari, hain zuzen, 2019ko foru-aurrekontuetarako ideia, iradokizun, gomendio edo ikuspegiei buruzkoari.


Herritarrek egindako ekarpenak eskumen-alorren arabera kodifikatu eta aztertu ostean, esan behar da **Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa departamenduak (1.670 ekarpen)** eta **Gizarte Politiken departamenduak (1.574 ekarpen)** jaso dituztela, hasiera batean, ekarpen gehien:

EKARPENAK FORU ESKUMENEN ARABERA



Aldiz, prozesuan parte hartu duten herritarren ustez lehentasun gehien duten gaiei arreta jarriz gero, hauek sortzen dute interes handiena: **bidegorriak** (908), **Lurraldebusen lineak eta ordutegiak** (560), **adinekoak** (467), **errepideen mantentze-lanak** (449), **egoitza-zentroak** (448) eta **hondakinen tratamendua** (398).


LEHENETSITAKO GAIAK



Herritarrek egindako ekarpen guztiak kontuan izanik, departamendu bakoitzean gehien errepikatutako eta/edo aipatutako ekarpenak aztertuko ditugu segidan. Dena den, gogoratu behar dugu azaldutako ideia eta egindako ekarpen batzuk ez direla Foru Aldundiaren eskumenekoak.


Hori dela eta parte-hartze prozesu honetan herritarrek egindako proposamenei erantzuteko fasean, hau da, foru-departamenduek gipuzkoarrek adierazitako kezka eta beharrei banan-banan erantzuteko orduan, Foru Aldundiaren eskumen-egiturari dagozkion ekarpenei emandako erantzunak aipatuko dira, eta ez administrazioaren beste alor edo esparru batzuei dagozkienak, tokiko alorretik hasi eta estatuari dagozkionetaraino.

1. DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA (392 EKARPEN)



- Euskara:** euskara ikasteko eta euskalduntzeko laguntzak, euskararen erabilera sustatzeko kanpainak, euskararen erabilera sustatzea, etorkinek euskara ikasteko laguntzak, euskararen erabilera funtzionarioen artean, plan estrategiko berria...
- Kontziliazioa:** kontziliaziorako laguntzak
- Berdintasuna:** berdintasun-plan bat, kanpainak, tailerrak eta hitzaldiak, ikastetxeetan berdintasunaren arloko pedagogia egitea, ekitaldiak, sexu-aniztasuna, genero-printzipioa modu eraginkorrean aplikatzea, indarkeria matxistaren aurkako borroka, soldata-arrakalari aurre egitea...
- Bizikidetzeta eta aniztasuna:** bizikidetzaren alde egitea, etorkinak integratzea, justizia soziala, berradiskidetzeta, balioen pedagogia...
- Giza eskubideak:** giza eskubideak sustatzeko eta errefuxiatuei laguntzeko kanpainak.
- Etorkizuna Eraikiz:** elektromugikortasuna, gastronomia 4.0 eta zibersegurtasuna.
- Beste batzuk:** kargu publikoen ordainsariak, memoria historikoa...

2. KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROLA DEPARTAMENTUA (511 EKARPEN)




- Gazteei zuzendutako politikak:** gazteentzako jarduerak eta espazioak, alkoholari eta drogei buruzko kanpainak, eskolako bullying-a, behar bereziak dituzten adingabeak...
- Kulturaren sustapena:** kultura sustatu eta bultzatzea, zinema, dantza, antzerkia, musika, kultur espazioak, aurrekontu handiagoa...
- Kirolaren sustapena:** kirola bultzatu eta sustatzea, eskolako kirola, kirol minoritarioak, kirolean txertatzea...
- Kirol-ekipamenduak:** kirol-ekipamendu berriak eta horien mantentze-lanak.
- Turismoaren sustapena:** oro har, turismoaren alde egitea eta, bereziki, barnealdeko turismoaren alde.
- Ondare historiko artistikoa:** eraikin historikoak babestea, ondareari balioa ematea...
- Udalekuak:** plaza gehiago
- Kultura bonua:** deskontuak eta kulturara sarbidea

9. Liburutegiak eta artxiboak: liburutegi gehiago

10. Kultur proiektuak: kultur ekimen zehatzak martxan jartzea


11. Beste batzuk: drogen eta alkoholaren kontsumoaren aurkako kanpainak, elikadura...

3. GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA DEPARTAMENTUA (86 EKARPEN)



- 1. Aurrekontu parte-hartzaileak:** aurrekontu irekien ekimen parte-hartzailea hobetzeko ekimenak
- 2. Herritarren parte-hartzea:** kontsultak egin, erreferenduma, parte-hartze prozesuak, parte-hartzea bultzatzea, gardentasuna, komunikazioa...
- 3. Enplegu publikoa:** enplegu publikorako deialdiak, administrazioaren tamaina...
- 4. Administrazioen modernizazioa:** administrazioa modernizatu, irakurketa errazeko metodologia txertatu
- 5. Burokrazia azkartu:** administrazio-izapideak azkartu
- 6. Batzar Nagusiak:** legegintzako proposamenak
- 7. Suteak eta salbamendua:** suhiltzaile gehiago
- 8. Beste batzuk:** gizartearekiko komunikazioa hobetu

4. EKONOMIA-SUSTAPENA, LANDA-INGURUNEA ETA LURRALDE-OREKA DEPARTAMENTUA (1.012 EKARPEN).




1. Ekintzailletza: ekintzailletzari laguntzak, gazteen ekintzailtzaren alde egitea, 40 urtetik gorakoek ekintzailletza, dibertsitate funtzionala duten pertsonen ekintzailletza...

2. Mendien garbiketa: mendien garbiketa, oro har, eta mendi jakin batzuk garbitzeko proposamenak

- 3. Enpresentzako laguntzak:** enpresentzako laguntzak, kontrataziorako laguntzak, autonomoentzako laguntzak, aholkularitza eta enpresa-ekimenak bultzatzea...
- 4. Inbertsio eta sustapen ekonomikoa:** lurraldeko ekonomia- eta ekoizpen-sarean inbertitzea, enplegua sustatzen duten nitxo eta baliabideetan inbertitzea, sustapen ekonomikorako ekimen zehatzak...
- 5. ETEei zuzendutako laguntzak:** enpresa txiki eta ertainei zuzendutako laguntzak, kontrataziorako laguntzak, ETEak indartzea, prestakuntza, I+G+b...
- 6. Abeltzaintza eta landa-garapena:** nekazaritza sustatzea, nekazaritza ekologiko eta jasangarria, baserriarrei zuzendutako laguntzak, baserriak mantentzeko laguntzak, tokiko produktuak babestu eta bultzatzea...
- 7. Mendiak eta habitaten kudeaketa:** hobekuntzak mendien kudeaketan eta babesean, suteen aurkako neurriak, mendien garbiketa, faunaren eta landare-bizitzaren babesa, natur parkeen garapena, Aralarko pistak...
- 8. Berrikuntza:** ikerketaren alde egitea, garpena eta berrikuntza, osasun-arloko ikerketa, zentro teknologikoei eta unibertsitateei laguntzak...
- 9. Emakume ekintzaileak:** emakumeen ekintzailtza bultzatzeko neurriak, aplikazio sozioekonomikoko eta lan-munduan txertatzeko berdintasun-politikak emakume ekintzaileentzat...
- 10. Landa-bideak:** mantentze-lanak, landa-bideen kontserbazioa, garbiketa eta garapena, mendi-bideak berreskuratzea, seinaleztapena hobetzea...
- 11. Udalerrri txikiei zuzendutako laguntzak (lurralde-oreka):** biztanle gutxiko udalerriei arreta handiagoa eskaintzea eta inbertsio gehiago egitea, aurrekontu-funtsen esleipena egokitzea, hobekuntzak komunikazioan eta teknologia berrietan, lurraldeko udalerrri txikiak sustatu eta bultzatzea...
- 12. Enpresa-lehiakortasuna:** lehiakortasuna hobetzea, saltokien lehiakortasuna hobetzea, saltoki txikiak babestea lehiakorrago bihur daitezen...
- 13. Industria aurreratua:** industria aurreratua eta industrian aplikatzen diren teknologia berriak sustatu eta garatzea.
- 14. Animalien osasuna:** animalien babesa, osasun-arloko proposamenak, animalianganako errespetua...

15. **Elektromugikortasuna:** elektromugikortasuna sustatu eta bultzatzea.
16. **Zibersegurtasuna:** zibersegurtasunaren arloan inbertitzea.
17. **Nekazari gazteak:** nekazari gazteei laguntzak ematea.
18. **Nazioartekotzeko laguntzak:** ETEak nazioartekotzea.
19. **Langileen parte-hartzea:** langileek enpresan duten parte-hartzea bultzatzen duten proiektuak sustatzeko laguntzak.
20. **Beste batzuk:** industria-lurrak, enpresen kontrola, fruta-arbolak.

5. MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE-ANTOLAKETA DEPARTAMENTUA (1.670 EKARPEN)



1. Bidegorriak: bidegorri-zati berriak egitea, bidegorriak elkartzea, mantentze- eta kontserbazio-lanak, probintzien arteko loturak...

2. Lurraldebusen lineak eta ordutegiak: Lurraldebusen lineak egokitzea, linea eta ibilbide berriak, herri txikietarako zerbitzua, maiztasun handiagoa, gaueko ordutegiak zabaltzea asteburu eta jaiegunetan...

3. Mugi txartela: garraio publikoan deskontuak aplikatu eta merkatzea, garraioari laguntzak ematea, tarifa lauak ezartzea, urteko bonua, beste probintzia eta garraio-bide batzuetara zabaltzea, garraio-txartelak bateratzea...

4. Lurraldebusen flota: flota handitzea, berritzea, irisgarritasuna, ibilgailu elektrikoak, mantentze-lanak, markesinak...


5. Pasaiko badia: badia berritzeko eta eremuaren garapena sustatzeko neurriak.

6. Lurraldebusen informazio-sistema: arreta eta informazioa hobetzea.

7. Hirigintza-plangintza: proposamen zehatzak.

8. Beste batzuk: Garraio publikoa erabiltzearen aldeko kanpaina, Donostialdeko metroaren eta Abiadura Handiko Trenaren aldeko eta aurkako iritziak, Hondarribiko aireportuaren garapena...

6. OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA (119 EKARPEN)



1. Politika fiskala / Zergak: zergak murriztea, zerga jakin batzuk murriztea, familiei, adinekoei, gazteei eta etxebizitzari zuzendutako pizgarri fiskalak...

2. Iruzuraren aurkako borroka: iruzur fiskala gehiago borrokatzea.


3. Gastu publikoa: gastu publikoa arrazionalizatzea, aurrekontuaren kontrola eta banaketa...

4. Aberastasunaren banaketa: lurraldeko aberastasuna hobeto banatzea, ikuspegi sozialetik

5. Zor publikoa: zorra murriztea

6. Beste batzuk: udalerrriak finantzatzea, banku publiko bat sortzea...

7. BIDE-AZPIEGITURAK DEPARTAMENTUA (689 EKARPEN)



1. Errepideen mantentze-lanak: errepideen eta haien ingurunean hobekuntzak egin, egokitu eta mantentzea.


2. Errepide eta azpiegitura berriak: errepide-lotura berriak egitea, errepide berriak, interkonexioak, azpiegitura berriak (pasabideak, zubiak)...

3. Bidesariak: bidesarien kostua murriztea, autobideak liberalizatzea, bidesariak beste probintzia batzuetan...

4. Pantaila akustikoak: trafikoak sortutako zarataren aurkako pantailak eta panelak instalatzea, kutsadura akustikoaren aurkako borroka...

5. Beste batzuk: errepideetako segurtasuna hobetzea, trafikoa murriztea, errepideetan inbertsioak egitea, argiztapena eta seinaleztapena...

8. GIZARTE-POLITIKA DEPARTAMENTUA (1.574 EKARPEN)




1. Adinekoak: adinekoei zuzendutako laguntzak, etxez etxeko laguntzak, laguntzen izapideak azkartzea, zaintzaileei zuzendutako laguntzak, bakardadearen aurkako borroka, hirugarren adinekoei zuzendutako gastuak, arreta eta zerbitzuak areagotzea...

2. Zahar-egoitzak: plaza gehiago zahar-egoitzetan, zahar-egoitza gehiago, arretaratioa hobetzea, zahar-egoitzetan jarduera gehiago egitea, zahar-egoitzetako langileen lan-baldintzak hobetzea eta langile gehiago jartzea...

3. Dibertsitate funtzionala – dependentzia: mendekotasunari zuzendutako laguntzak, mendekotasun-lege berria, laguntzak jasotzeko irizpideak berrikustea, mendekotasunari zuzendutako aurrekontua handitzea, laguntzen kontrola...

4. **Eguneko zentroak:** plaza gehiago eta eguneko zentro gehiago.
5. **Gizarte-bazterketa:** gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako laguntzak, harrera-zentroak, tutoretzapeko etxebizitzak, jangela sozialak, gizarte-hezitzaileak, etorkinei zuzendutako laguntzak...
6. **Indarkeria matxistaren biktimak:** Indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako laguntzak, harrera-zentroak, laguntza ekonomiko eta inbertsio gehiago, lege-aholkularitza, indarkeria matxistaren aurkako kanpainak, genero-indarkeriari buruzko politikak berrikustea...
7. **Hurtzaroa eta nerabezaroa:** haurrentzako laguntzak, gaixotasun kronikoak dituzten haurrentzako laguntzak, adingabeen babesak...
8. **Osasun mentala:** osasun mentalera bideratutako laguntzak hobetu, eta aurrekontua handitzea...
9. **Beste batzuk:** gizarte-politikak sustatzea, aurrekontu-zuzkidura handitzea, gizarte-estaldura handiagoa, obra sozialak, departamentua modernizatzea, laguntzen kontrola...

9. INGURUMENA ETA LAN HIDRAULIKOAK (1.106 EKARPEN)



1. Hondakinen tratamendua: hondakinen kudeaketa eta tratamendua, erraustegiaren aldeko eta kontrako iritziak, errausketaren alternatibak, atez ateko sistema ezartzea, bosgarren edukiontzia erabilera egokitu eta hobetzea, plastikoaren erabileraren aurka egitea...

2. Ibaien garbiketa: lurraldeko ibaiak kontserbatzeko eta garbi mantentzeko proposamen zehatz eta orokorrak, isurien eta pestiziden kontrola...

3. Birziklapena: birziklapena sustatzea, birziklapenaren aldeko kanpainak, birziklapena sustatzeko neurriak, hondakinak gaika biltzeko pedagogia...

4. Ingurumenaren babesa: ingurumena babesteko politikak eta kanpainak sustatzea, alor horretan ikerketak egitea, zigorrak...

5. **Hondartzak:** garbiketa, hondartzen babesa eta kontserbazioa.
6. **Energia jasangarria:** energiaren erabilera jasangarria eta energia garbiak sustatzeko ekarpenak eta neurriak
7. **Kutsadura:** kutsadurari aurre egiteko ekarpenak...
8. **Azpiegitura hidraulikoak:** azpiegitura hidraulikoak sortu edo mantentzeko ekarpenak.
9. **Klima-aldaketa:** kanpainak, pedagogia, hezkuntza eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurriak sustatzea.
10. **Eremu degradatuak:** ekarpen zehatza.
11. **Beste batzuk:** departamentuak aurrekontu-zuzkidura handiagoa izatea.

10. FORU-ESKUMENETIK KANPO DAUDEN EKARPENAK (1.071 EKARPEN)


Foru-eskumenetik kanpo dauden ekarpentzat hartzen dira beste administrazio-eremu batzuetara zuzenduta dauden ekarpenak (udalak, mankomunitateak, Eusko Jauriaritza, Estatuko Gobernu eta/edo Europar Batasuna).

11. ONARTU GABEKO EKARPENAK (20 EKARPEN)

Diskurtso iraingarria eta diskriminatzailea duten ekarpenak dira.

2. galdera: Zure ustez, zein dira Gipuzkoako etorkizunerako erronka nagusiak?

Segidan, Gipuzkoak etorkizunari begira dituen erronkei buruzko ekarpenak azalduko ditugu, kategorien arabera banatuta. Guztira, **5.017 ekarpen** egin dituzte herritarrek.



Gipuzkoaren erronkak...

1. **Enplegua:** kalitatezko enplegua sortzea, besteak beste, gazteentzat, emakumeentzat eta 30 eta 50 urtetik gorakoentzat. Talentu-ihesari aurre egitea aukera-faltagatik eta langabezia eta desenplegua geldiarazteko formula aurkitzea. Lan-munduan txertatzeko trebakuntza hobetzea. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako lanpostuak sortzea. Etorkinei lan-munduan txertatzeko erraztasunak jartzea.
2. **Etorkizuna Eraikiz:** Etorkizuna Eraikiz programaren barruko proiektu estrategiko eta esperimentalekin loturiko ekarpenak: “Adinberri” gizartearen zahartzeari buruzko arreta, kontziliazioa, elektromugikortasuna, klima-aldaketa, zibersegurtasuna, babesik gabe dauden gazteak gizarteratzea, garapen jasangarria, 4.0 gastronomia, bide berdeak, Izeba programa...
3. **Ingurumena eta ekologia:** babesa, kontzientziaketa, sentsibilizazioa eta ingurumenaren babesa. Kutsadurarena urkako borroka, jasangarritasuna, ibai, mendi eta itsasoak zaindu eta garbitzea, birziklapena sustatzea. Eremu berdeak egokitzea, ibilbideak egin eta birgaitzea, plastikoaren erabilera murriztea, ingurumen-politikak hobetzea, eremu degradatuak birgaitzea eta ingurumenari eta ekologiarri buruzko Europako araudia betetzea.
4. **Hondakinen kudeaketa:** erraustegiaren aurkako iritziak, birziklapena bultzatzea, hondakinen kudeaketa eta kontrola, erraustegiaren inguruko eztabaida konpontzea, hondakinak biltzeko irizpideak bateratzea, hondakinen inguruan kontzientziatzeko eta kontsumo arduratsurako kanpainak bultzatzea, edukiontziak...
5. **Azpiegiturak:** errepideen mantentze-lan eraginkorrak, autobideak liberalizatzea, bide-azpiegitura berrietan inbertsioak egitea, metroa eta AHTa egitearen aurkako eta aldeko iritziak, tren-zerbitzua hobetzea, Hondarribiko aireportua eta bere zerbitzuak handitzea, Abiadura Handiko Trena amaitzea, bide-segurtasuna hobetzea, komunikazioak hobetzea, portuei buruzko araudia, trenbide-pasaguneak, zubiak eta pasabideak egitea, trenbide-sarea hobetzea, trenbideak lurperatzea, superportuaren aurkako jarrerak eta gaur egungo errepideak arintzeko saihezbideak egitea.
6. **Hezkuntza:** gaur egungo hezkuntzaren eta hezkuntza-sistemaren kalitatea, bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, balio-heziketa eta gizalegea bultzatzea, inbertsioa,

ikasleak trebatzea, hezkuntza-sistemaren eskuragarritasuna eta unibertsaltasuna, ikastetxeetako instalazioak hobetzea, beka gehiago ematea, lanbide-heziketa bultzatzea, profesionalak prestatu eta zaintzea, elebitasuna hezkuntzan, euskara izatea hezkuntza-sistemaren oinarritzko hizkuntza, ikasketak sustatzea, txertaketa sustatzea eta bereizketari aurre egitea, PISA txostenaren batezbestekoa gainditzea eta IKT bidezko irakaskuntza ezartzea.

7. **Jaiotza-tasa – zahartzea:** populazioaren zahartzeari aurre egiteko neurriak, jaiotza-tasa areagotzeko laguntzak, haurtzaindegi merkeagoak, gazteen eta adinekoen populazio-oreka.
8. **Zientziaren eta berrikuntzaren sustapena:** inbertsioa I+G+bn, medikuntzan, ikerketan, teknologietan, 4.0 industrian, zientzian...
9. **Mugikortasuna eta garraio publikoa:** garraio publikoaren loturak eta mugikortasuna hobetzea, garraio publikoa jasangarriagoa egitea, autobus-flotan inbertsioak egitea, Mugi txartelaren kudeaketa eta abantailak, lineak eta maiztasunak areagotzea, garraio publikoaren kalitatea, metroaren aldeko eta kontrako jarrerak, garraio publikoko deskontuak eta prezioak eta kamioi-zirkulazioa.
10. **Etxebizitza:** gazteek eta 50 urtetik gorakoek etxebizitza eskuragarriago izatea, alokairuen prezioak merkatzea, Babes Ofizialeko Etxebizitzak, etxebizitza erosteko laguntzak.
11. **Berdintasuna:** berdintasuna sustatzeko kanpainak, genero-berdintasuna, matxismoaren, sexismoaren eta genero-indarkeriaren aurkako borroka, justiziaren aurreko berdintasuna, desberdintasun ekonomikoak, sozialak... lanpostuetan, familia-eredu berrientzako berdintasuna, eskubide zibilak, zaintza partekatua, ekitatea eta feminismoa bultzatzea.
12. **Gizarte-politikak:** inbertsioa gizarte-politikan, gizarte-zerbitzuak hobetzea, etorkinentzako laguntzak, laguntzak hobetu eta kontrolatzea, aberastasuna hobeto banatzea, laguntzak eskatzeko burokrazia arintzea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kontrolatzea, eskubide sozialak eta ama ezkongabeentzako laguntzak.
13. **Eguneko zentroak, zahar-etxeak eta tutoretzapeko etxebizitzak:** eguneko zentro, zahar-etxe eta tutoretzapeko etxebizitza gehiago egitea, profesional gehiago, itxarote-zerrendak arintzea...
14. **Bizikidetzaren eta aniztasuna:** etorkinen gizarteratzea sustatzea, errefuxiatuekiko elkartasuna, arrazismoari aurre egitea...
15. **Euskara:** euskara bultzatu eta sustatzea, erabilera bultzatzea, elebitasuna mantentzea, hizkuntzaren normalizazioa eta euskara ikasteko laguntzak.

- 16. Gizarte-ongizatea:** bizi-kalitatea ziurtatzea, gizarte-babesa, pobrezia desagerraraztea, gizarte-bazterketa egoeran daudenentzako aterpetxeak hobetzea, etxeko lanak egiten dituztenentzako laguntzak, plaza gehiago harrera-etxeetan, eskubide sozialak ziurtatzea.
- 17. Erretiroak:** pentsioak hobetzea.
- 18. Osasuna:** osasun-arretan inbertsioak egitea, gizarte-segurantza hobetzea, osasun-laguntza, osasun-zentroetan espezialista gehiago jartzea, itxarote-zerrendak arintzea, osasunaren pribatizazioari aurre egitea, baliabideak areagotzea.
- 19. Adinekoak eta mendekotasunak dituztenak:** mendekotasunak dituzten pertsonen zuzendutako laguntzak hobetzea, adinekoentzako eta mendekotasunen bat duten pertsonentzako zainketak eta baliabideak, bizi-kalitatea ziurtatzea, adinekoen bakardadea arintzea, adinekoentzako jarduerak antolatzea...
- 20. Gazteria:** gazteentzako laguntzak, emantzipazioa, aisialdiko planak eta espazioak sustatzea, prestakuntzarako erraztasunak, tailerrak...
- 21. Espazio publikoa:** espazio publikoak eta eremu berdeak areagotzea, aparkalekuak eta parkeak hobetzea, igogailuak eta eskailera eta arrapala mekanikoak jartzea, kaleak oinezkoentzat egokitzea, espazioen mantentze- eta zainketa-lanetarako hornidura gehiago, herritarren segurtasuna eta ondarearen kontserbazioa hobetzea...
- 22. Enpresak:** enpresa txiki eta ertainentzako laguntza gehiago, ekintzailtza bultzatzea, enpresak, autonomoak eta kooperatibak sortu, digitalizatu eta lehiakor bihurtzea...
- 23. Kultura:** bertako kultura nahiz kultura orokorrean inbertsio gehiago egitea, kulturaren aniztasuna sustatzea, ondarea zaintzea, liburutegiak, kultur etxeak, kultura doan jasotzea, musika-jarduerak bultzatzea, kultura babestea...
- 24. Gobernu Irekia:** gobernantza ireki eta kolaboratiboan oinarrituriko eredu berrirantz pausoak ematea, Gobernu Irekiaren printzipioetan oinarritua: herritarren parte-hartzea, gardentasuna eta kontuak ematea.
- 25. Turismoa:** turismo jasangarria, kalitatezkoa eta denboran mailakatua lortzea, kostaldeko nahiz barnealdeko herrietan (landa-turismoaren sustapena barne).
- 26. Lurralde-oreka:** udalerrri guztiak modu orekatuan bilduko dituen lurralde baterantz pausoak ematea, udalerrrien aniztasuna, biztanle-kopurua eta idiosinkrasia kontuan izan gabe.

- 27. Independentzia eta autonomia:** lurraldearen independentzia lortzea, eskumenen transferentziak, autonomia sakontzeko pausoak ematea eta euskal kontzertu ekonomikoa mantentzea.
- 28. Berrikuntza politikoa eta administrazio publikoa:** gardentasuna, ustelkeria politikoaren aurkako borroka, ordainsarien berrikuspena, lan-eskaintza publikorako sarbidea hobetzea.
- 29. Energia:** energia berriztagarriak ezarri eta garatzea, energia-kontsumo jasangarria lortzea, autosufizientzia lortzea.
- 30. Animaliak:** animalien abandonuari aurre egitea, animalien aurkako tratu txarren eta abandonuaren aurkako kontzientziazio-kanpainak, babes-politikak.
- 31. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borroka:** zerga-iruzurraren aurka borrokatzea eta kontrol handiagoa lortzea.
- 32. Fiskalitatea eta zorra:** aberastasuna era arrazionalizatuan banatzea, zerga ekitatiboen bidez eta zorra murriztuz.
- 33. Bidegorriak:** bidegorri-zatiak elkartzea, lotura berriak, bizikleta-bideak egitea, bizikletaren erabileraren aldeko kanpainak.
- 34. Irisgarritasuna:** hesi arkitektonikoak desagertzea eta espazio publikoa irisgarri bihurtzea.
- 35. Segurtasuna:** herritarren segurtasuna hobetzea.
- 36. Sustapen ekonomikoa:** lurraldeko inbertsioa eta ekonomia bultzatzeko politikak.
- 37. Industria:** lurraldeko industria garatzea.
- 38. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza:** lehenengo sektorearen aldeko laguntzak eta sustapena eta baso-pistak egitea.
- 39. Kirola:** ekipamendu berriak, kirol-instalazioak, kirolaren maskulinizazioari aurre egiteko eta genero-ikuspegitik inklusibo bihurtzeko politikak, kirol-azpiegituretan eta kirolaren sustapenen inbertsioak egitea.
- 40. Merkataritza eta ostalaritza:** merkataritzari eta ostalaritzari laguntzak.
- 41. Beste batzuk:** presoen egoera, irekitasuna, normalizazioa, hirigintza-planak berritzea, zuntz optikoa industrialdeetan, lan-munduan txertatzea, krisi ekonomikoan galdutako eskubideak berreskuratzea, egungo bizi-maila mantentzea, elikadura-autosufizientzia, lurralde-harremanak hobetzea, aldaketa politikoa...

4. ONDORIOAK

AURREKONTU IREKIAK 2019: HERRITARREK LURRALDEKO MUGIKORTASUNARI ETA GIZARTE- POLITIKEI EMATEN DIETE LEHENTASUNA

Parte-hartze prozesuaren emaitzetan, alor hauetan pausoak emateko beharra adierazi dute herritarrek: bizikleta-bideak, Lurraldebusen lineak eta ordutegiak hobetzea, adinekoei zuzendutako laguntzak eta arreta, errepideen mantentze-lanak eta plaza gehiago zahar-etxeetan.

Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak martxan jarritako Aurrekontu Irekiak ekimenaren hirugarren edizioan, mugikortasunari eta gizarte-politikei buruzko kezka agertu dute, gehienbat, parte hartu duten herritarrek. Zehazki, Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuak eta Gizarte Politika Departamentuak herritarrek egindako eskaeren % 40 biltzen dituzte, eta horiek daude, nabarmen, lehenengo lekuan. Bigarren lekuan, berriz, herritarrek egindako proposamenen % 25 Ingurumena eta Lan Hidraulikoak Departamentuaren eta Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuaren arlokoak dira.

Hain zuzen, bizikleta-bideen zatiak luzatu, mantendu eta lizitzeko beharra adierazi dute prozesuan parte hartu duten hainbat gipuzkoarrek. Bigarrenik, ekarpen asko egin dira garraio publikoa egokitzeko beharrari buruz. Besteak beste, Lurraldebusen lineak aldatu eta/edo berriak sortzeko eta gaueko eta asteburuetako zerbitzua hobetzeko beharra adierazi dute herritarrek.

Hirugarrenik, adinekoen gizarte-babesaren arloan aurrerapausoak ematearekin loturiko gomendio asko jaso dira. Hala, etxez etxeko laguntza hobetzeko, bakardadearen aurka borrokatzeko eta hirugarren adinekoei zuzendutako prestazioak garatzeko beharra

adierazi dute herritarrek, besteak beste. Horrekin batera, lurraldeko errepideen mantentze-lanak 2019ko Foru Aurrekontuetan txertatzeko proposamen asko bildu dira.

Halaber, nabarmentzekoak dira adinekoren zahar-etxeei buruzko eskaerak. Gai horrekin loturik, zahar-etxe gehiago egitea, plaza gehiago eskaintzea eta zahar-etxeetako zerbitzuak merkatzea eskatu dute parte-hartzaileek. Bestalde, hondakinen kudeaketarekin eta tratamenduarekin eta Gipuzkoako ibaien garbiketarekin loturiko eskaera asko jaso dira.

Lehenengo urteko edizioarekin alderatuta, bi alderdi nagusi azpimarratu behar dira aurtengo parte-hartze prozesuan: batetik, herritarrek askoz ere ekarpen eta gomendio gutxiago egin dituzte, oro har, Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuari eta, bereziki, enplegu-sorkuntzari buruz. Bestalde, aurreko edizioan lehentasuna izan zuten eskaera batzuek (adibidez, iruzurraren aurkako borroka) bigarren lekura pasatu dira, Ogasun Departamentuak arazo horri aurre egiteko egindako inbertsioen ondoren.

Laburbilduz, aurtengo aurrekontu-sailetan, gipuzkoarrek Aurrekontu Irekiak ekimenaren bidez adierazitako kezkek eta beharrak txertatu ziren. Horren erakusgarri dira aurtengo edizioaren emaitzak. Hala, beste arlo batzuetako eskaerak nabarmendu dira, hain zuzen, lurraldeko mugikortasunari eta gizarte-ongizateari buruzkoak.

ETORKIZUNA ERAIKIZ, GIPUZKOAREN ETORKIZUNeko ERRONKEN BERMEA

Foru Aurrekontuei ekarpenak egiteaz gain, lurraldearen etorkizuneko erronkei buruz ere galdetu zaie herritarrei. Beste behin ere, enpleguari buruzko eskaerak nabarmendu dituzte parte hartu duten herritarrek, eta, ondoren, Etorkizuna Eraikiz ekimenak martxan jarritako strategiaren barruko erronka nagusiak aipatu dituzte.

Besteak beste, erronka hauek aipatu dituzte Gipuzkoaren etorkizunerako: zahar-etxeak (adibidez, Pasaiako Adinberri), kontziliazioa, elektromugikortasuna, klima-aldaketa, zibersegurtasuna, babesik gabe dauden gazteen integrazioa eta etxez etxeko laguntza. Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako Etorkizuna Eraikiz ekimen estrategikoak kezka horiei guztiei erantzuten die, Gipuzkoa gizarte-ongizatearen arloan aitzindari izatea helburu duten proiektu estrategiko eta esperimentalak garatuz eta martxan jarritz.

Etorkizuna Eraikiz ekimena hezurmamitzen dute proiektu estrategikoez gainera, gai hauen garrantzia ere adierazi dute herritarrek: ingurumena, ekologia, hondakinen

kudeaketa eraginkorra, azpiegiturak, hezkuntza, jaiotza-tasa eta zahartzea, zientziaren eta berrikuntzaren sustapena, mugikortasuna, etxebizitza, berdintasuna eta gizarte-politikak.

Hala, era mailakatuan, garapen jasangarriaren aldeko apustua sendotu behar duen lurralde gisa deskriba daiteke Gipuzkoa, irizpide ekologikoak eta sozioekonomikoak bateratuz, eta, horien bidez, askotariko herritarren ongizatea eta bizi-kalitate hobetuz.

LURRALDEAREN % 100ERA ZABALDU DEN PARTE-HARTZE PROZESUA, INOIZ BAINO PARTE-HARTZE HANDIAGOAREKIN

Hirugarren edizio honetan, herritarrek 13.267 ekarpen egin dituzte guztira; aurreko edizioan baino % 42 gehiago. Parte-hartzea ere asko hazi da; hain zuzen, 4.420 herritarreko partaidetza-lagina lortu da. Horrek esan nahi du herritarren parte-hartzea % 35 hazi dela. Ekarpeneak modu bereizian aztertuta, foru-aurrekontuetan txertatzeko 8.250 ekarpen egin dira eta Gipuzkoaren etorkizuneko erronkei buruzko 5.017 ekarpen. Bestalde, emakumeen parte-hartzea laginaren % 58ari dagokio, eta batezbesteko adina 49,2 urtekoa izan da.

2019ko Aurrekontu Irekiak ekimena erreferentziazko parte-hartze prozesua da nazioarte mailan, eta zabalenetakoa estatu-mailan. Aurten, parte hartzeko kanal berri bat erabili da. Hala, 310.000 galdera-sorta baino gehiago banatu dira Gipuzkoako etxe guztietan, helmugan ordaindutako frankeo bidez. Halaber, ekimenak hiru hilabete gehiagoko iraupena izan du, eta Herriz Herri kanpainaren barruko karpa ibiltariak 1.200 herritarretik gorako herri guztietara iritsi dira.

Gizarte zibilarekin egindako Topaketetan ere nabarmen igo da parte-hartzea. Topaketa horietan, Foru Aldundiko ordezkariak Aldundiaren kudeaketari buruzko kontuak ematen dituzte, eta lurraldeko gizarte-taldeen eskaerak eta beharrak biltzen dituzte. Guztira, 28 topaketa egin dira, eta 800 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Bestalde, aurten 8 topaketa egin dira biztanle gutxiko 34 udalerrirekin. Horietan, 79 ordezkari politikok hartu dute parte. Hala, Aurrekontu Irekiak 2019 ekimenak Gipuzkoako udalerrri guzti-guztietara iristea lortu du.

MARTXAN DA PROPOSAMENEI BANAN-BANAN ERANTZUTEKO PROZESUA

Herritarrek, gizarte zibilak eta udalerrri txikietako ordezkariak egindako ekarpen guztiak kodifikatu egin dira, eta dagozkien foru-departamentuetara bidali. Foru-departamentu

eta -zuzendaritzek 2019ko foru-aurrekontuak planifikatzeko eta egiteko prozesuan parte hartu duten herritarren ekarpen horiek aztertuko dituzte.

Aurten ere, prozesuan parte hartu duten guztiek ekarpenari dagokion departamentuaren erantzuna jasoko dute. Erantzun horretan, proposamena zer eskumen-arlori dagokion eta 2019ko foru-aurrekontuetan txerta daitekeen azalduko da, modu arrazoituan.

Berritasun gisa, aurten, Haurren Erabakia parte-hartze prozesuko partaideei ere banan-banan erantzungo zaie. Haurren Erabakia ekimenaren bidez, Gipuzkoako haur eta gazteek politika publikoen arloan duten ikuspegia jaso nahi izan da, haiek baitira Gipuzkoaren etorkizuna.

5. GURE KONPROMISOA GIPUZKOAREKIN

Beste urte atez, 2019ko Aurrekontu Irekiak parte-hartze prozesuaren barruan, lortutako emaitzen berri emango da, eta Foru Aldundiak zenbait konpromiso hartuko ditu, herritarrek egindako eskaerei erantzunez. Ondoren, prozesuaren emaitzak eta mugarriak jakinaraziko zaizkie parte hartu duten herritarrei eta, oro har, gipuzkoar guztiei, zenbait kanalen bidez. Hori egitean, balioa emango zaie Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendu duen parte-hartze ariketari eta jasotako ekarpeni.

Hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du parte-hartze prozesuaren emaitzak jakinarazteko eta jasotako eskaerak aztertu eta erantzun bat emateko. Horrez gainera, Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du 2019 Aurrekontu Irekien ekimena dela-eta martxan jarritako parte-hartze prozesuan oinarrituriko proiektuen eta lehentasunezko politiken betetze-mailari buruzko kontuak emateko.

Departamentu bakoitzari parte-hartze prozesu honen barruan dagozkion ekarpenak kodifikatu eta aztertu ondoren emango dira kontuak eta hartuko dira konpromisoak. Hala, herritarrek egindako ekarpenak 2019ko aurrekontuen behin betiko onarpenean txertatzeko zer aukera dagoen aztertuko da. Horrez gainera, egindako ekarpen bakoitzari erantzungo zaio, eta kasu bakoitzean konpromiso hartuko den zehaztuko da.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA